




Eneko Aizpuru Lehertu da festa liburuarekin, eta Urt Zubiaurre Izenik gabeko lurrak lanarekin, aurkezpen egunean, Donostian. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Atmosfera literarioen jolasa

Eneko Aizpuruaren 'Lehertu da festa' hirugarren lana eta Urt Zubiaurreren 'Izenik gabeko lurrak' estreinakoa plazaratu ditu Erein argitaletxeak

Gorka Erostarbe Donostia

Donostia Europako hiriburutzaren atarian da. Mikel Egileor *freelance* kazetari ohia ikertzaile dabil orain. Hiriko gazte baten desagerpena ikertzeko enkargua eman diote. Egileorrez gain, ordea, Ertzaintza ere atzetik dabil kio gazteari, Europako kultur gertakari handia hondatu eta galarazi nahi duelakoan. Hori du abiaburu, hori du atmosfera eta testuinguru Eneko Aizpuruaren

Lehertu da festa hirugarren nobelak. Aurrekoetan bezala, Erein argitaletxearen Uzta Gorria sailean argitaratu du, eta, aurrekoak bezala, Mikel Egileor du protagonistatzat. *Errauts* eta *Herensuge gorriaren urtea* izan ziren aurreko bi eleberriak.

Donostia 2016 Europako kultur hiriburutzaren testuinguru eta girotea ez ditu alferrikako hautaketa Aizpuruak. Intentzio garbiz egin baitu. «Europaren ideia asko interesatzen zaidalako.

Europa inoiz baino beharrezkoagoa dugula uste dudalako, eta Europaren aldarria ere egin nahi dudalako». Donostiaren kultura hiriburutzak lotura gutxi du Europaren ideiarekin, ordea, egilearen iritzian: «Austriako telesail bat dakarkit gogora. Telesail horretan, gatazka izugarriak dituzte herritarrek; zor izugarriak ditu herriak, eta alkateari zer bururatuko, eta Ama Birjinaren agerpen bat antolatzea, turistak erakarri eta etekin ekonomiko ateratzeko, hor sortzen den masa fenomeno horri esker.

Paisaiak ondo islatzeko eta psikologikoki eraginkorrak izan zitezen, ibilaldi ugari egin zituen Zubiaurrek

Hemen, Ama Birjina ez, baina kultur hiriburutza zerutik jatsi dela dirudi Donostiara; noiz jaitziko, gainera, eta Europar Bata-suna beheka jotzekotan dagoen-an, *brexit*-arekin, etorkinen krisiarekin...». Kultur hiriburutza ospatzen den urtean «Europaren ideia umezurtz» geratzen da, Aizpuruak dioenez. «Egiaz, hemen oso jende gutxiri interesatzen zaio Europa eta haren ideia. Ideia horren inguruan eztabaida sakonik ez dut inon ikusi, eta eztabaida hori sustatzeko idatzi dut nobela hau».

Nobelan, atentatuen psikosia hiriko bazter guztietan hedatuko da. «Agintariekin segurtasun neurriak indartu dituzte, baina inork ez daki zer gertatuko den hurrena». Liburuak hasi aurretik agertzen diren bi aipuek ematen dute pistarik nobelaren nondik norakoaren inguruan. Lehena Joxe Bizente Etxegarai donostiar idazlearen *Festarik behar bada* izeneko bertso famatua da: «Festarik behar bada, bego Donostia! Betikoa du fama ondo merezia./ Bestetan ez bezala hemen gazte-dia/ amaren sabeletik dator ikasia». Bigarrena, Guy Debord pentsalari frantsesaren *La Société du Spectacle* liburutik aterea da: «*Dans le monde réellement renversé, la vrai est un moment du faux*». (Benetan alderantzizkatutako mundu batean, erreala faltsuaren une bat da).

Paisaiak protagonista

Oso bestelako giro eta paisaiak ditu ardatz Urt Zubiaurreren *Izenik gabeko lurrak* ipuin liburuak. Hainbat ipuin lehiaketatan (Atarrabia, Lasarte-Oria, Gabriel Arestiko accesita...) sariak lortu ondotik, estreinakoa liburuak kale-ratu berri du Zubiaurrek Ereinekin. «Ez genion bere idazketari

arreta jarri sariketak irabazteagatik, baizik eta ipuinok irakurri bezain pronto nabaritu genuelako bazuela marka bat, estilo bat. Eta ipuinekin hori lortzea ez da hain erraza», nabarmendu zuen Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeko arduradunak aurkezpen ekitaldian. Liburuak hemezortzi ipuin dauzka, eta «gaiak, tamainak, estiloak eta, batzuetan, euskalkiak ere diferenteak dira», Zubiaurreren beraren hitzetan. Abiapuntuak ere «zeharo desberdinak» dira: «Adibidez, eskola baten atarian bi pertsona hizketan ikustea. Edo miresten dituzun bi filosofoen arteko topaketa sekretua. Edo jada trenak geratzen ez duen geltoki zaharra. Edo bizkarreko min bat, hilabe-

teetan sekulako lana ematen dizuna, eta bat-batean, goizetik gauera eta esplikaziorik gabe, desagertu egiten zaizuna».

Paisaiak ondo islatzeko eta psikologikoki eraginkorrak izan daitezzen, ibilaldi ugari egiten zituen Zubiaurrek, haietako asko mendi eta basoetara: «Basoak ere balio dezake sortu nahi izan dudana efektuaren metafora gisara. Irakurlea basoan sartu eta bertan galduta uztea gustatzen zait; ez diet amaiera bat eskaintzen. Galdarak daude, baina erantzunak irakurle bakoitzak bilatu beharko ditu ipuin bakoitzaren amaieran».


HILBERRIA



Joxe Mari Iriondo.
Soinu handiari itsatsita

G.E.

Larunbatean zendu zen Joxe Mari Iriondo Mendizabal soinu jotzailea, uztailaren 2arekin. Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen, 1931n, eta 1950ean Zaldibarrera (Bizkaia) ezkondu zen. 15 urte zituela, festetan jotzen hasi zen soinu handiarekin, saxofoia eta bateria lagun zituela. Arrate irratien eskariz, hainbat grabazio egin zituen 1959an, eta, 1960an, bi single eman zituen argitara, Columbia diskoetxearekin, Benito Osa pandero jotzailea lagun zuela. Soinu jotzaile izateaz gain, trikiti txapelketako epaima-haikide izan zen urte askoan.



"25 urtean baseritarrekin eta arrantzaleekin lanean, Lurreko eta Itsasoko produkturik onena lortu nahian, betiere eta sakrifizio handiz. Produktu horiek oinarri harturik, plater tradiziozkoak egiten ditugu, modernotasun kutsuokak".

ERRESERBAK
943-21 92 04

HELBIDEA
Igara bidea, 15
20018 DONOSTIA
Gipuzkoa
info@restaurantearatz.com

ARATZ
asadar - erretegia

EGUNEKO MENUA

Aratz jatetxean, astelehenetik ostiralera, eguneko menua. Goi mailako platerak, modu onean: 10,70 €.

